

ERRONKA bat **PARKE** arentzat

EKIMENAREN OINARRIAK



Baduzu Parkea HOBETZEKO IDEIAREN bat?

Euskadiko Teknologia Parkeen Sareak berrikuntzako ekimen ireki honen edizio berri bat abiaraziko du, Parkeak eta horietan instalatutako enpresak hobetzeko lagungarri diren ideiak identifikatzeko.

ERRONKAREN ESPARRUA

Proposatutako ideiak Parkeen Sarearen, bertako enpresen eta horiek osatzen dituzten pertsonen arteko harremanaren edozein esparruri buruzkoak izan ahalko dira: Azpiegiturak, proiektuak, zerbitzu aurreratuak, ekimen berriak, etab.

Asmoa ekimen, zerbitzu eta proiektu berritzaile berriak abiarazteko ideiak ematea da, Euskadiko Teknologia Parkeen Sarea (aurrerantzean ETPS) osatzen duten Parkeak hobetzek lagungarri izango direnak.

HARTZAILEAK

Ekimen honen hartzaileak Euskadiko Teknologia Parkeen Sarean lekututako enpresetan lan egiten duten pertsonak dira, Parke horiek hobetzeko helburuak dituzten ideiak proposatu nahi dituztenak.

SARIAK

Parte hartzen duten pertsona eta enpresak zenbait zozketa eginda sarituko dira:

PERTSONA: Edizio honetan parte hartzen duten pertsonak zozketa batean sartuko dira. Horrela, **3 bidaia-poltsa** zozketatuko dira, **bakoitzak 500 euroko balioa izango duena** (bidai-poltsa 1 lurraldeko).

ENPRESA: Parte hartzen duten pertsonen enpresak ere zozketa batean sartuko dira. Kasu honetan, Parke bakoitzaren eraikin nagusietan lekututako **sorkuntza-aretoen 3 erabilera doako** izango da saria (lurraldeko 1), lanegun batean zehar erabiltzeko.

Pertsona eta enpresa irabazleak **Gabonetako topaketetan** ezagutaraziko dira.



Eman forma zure ideiarri Parkeek zure ERRONKA zergatik txertatu beharko luketen adierazi eta gu konbentzitzeko

PARTE HARTZEKO MODUA

Parte hartu nahi duten pertsonak IDEIA mugaegunaren aurretik aurkeztu beharko dute, web inprimaki bidez. Pertsona bakoitzak nahi beste IDEIA aurkez ditzake. Haatik, horietako bakoitzerako inprimaki bat erabili beharko dute, eta zozketa bakarrean sartuko dira.

Proposamenetan alderdi hauek aipatu beharko dira erreferentzia gisa:

- Balizko txertatzea Euskadiko Teknologia Parkeen Sarean.
- Inpaktua:
 - Ideia gauzatuta, haren onuradun izan daitezkeen enpresa edota pertsona kopurua.
 - Sareko Parkeetan instalatutako erakundeetako negozioen garapenean.
 - Parkeen sarea osatzen duten erakundeetako langileen garapen pertsonal edota ongizatean.

Proiektu/zerbitzuaren iraunkortasuna denboran



BIDALI zure proposamena

Ideiak horretarako prestatutako web inprimaki bidez aurkeztuko dira.

[IDEIAREN FORMULARIOA](#)

Hau izango da ideiak jasotzeko epea:

- Irakiera: 2022ko uztailaren 18an
- Amaiera: 2022ko urriaren 31ean

Epez kanpo bidalitako proposamen oro baztertu egingo da.

BALDINTZA OROKORRAK

- Ekimen honetara aurkezteak pertsona parte-hartzaileek eta horien enpresek oinarri hauek ezagutu eta onartzen dituztela aurrean nahi du, eta baita aurreikusi gabeko gorabeheren ondorioz hartzen den edozein ebazpen ere.
- Parte-hartzaileek helarazitako dokumentazio orok izaera konfidentziala izango du. Dena den, Euskadiko Teknologia Parkeen Sareak aurkeztutako proposamenen ezaugarri nagusiak eta horien sustatzaileen izenak (pertsona eta enpresa) hedatu ahal izango ditu.
- Aurkeztutako proposamenen egile diren pertsonak ETPS sareari lagatzen dizkiote berriaz obra ustiatzeko eskubideak, inolako mugarik gabe, ustiapen-modalitate guztiak barne.
- Datu pertsonalen tratamenduei eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016/679 Erregelamenduko (EB), (aurrerantzean DBEO), 13. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, ETPS sareak datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio hau helarazten du:

Arduraduna: ETPS. Haren harremanetarako datuak hemen aurki daitezke: www.parke.eus

Datuak ETPS sarearen jarduera eta zerbitzuen jakinarazpenak, buletinak eta posta elektronikoak bidaltzeko tratatzen dira.

Datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, tratamendua mugatu, aurkatu eta eramateko eskubideak erabiltzeko rgpd@parke.eus helbidera idatz dezakezu

Mesedez eskatzen dizugu ETPS sareko webgunearen pribatutasun-politika ikusteko (<https://parke.eus/es/privacidad/>) ETPS sareak zuren datuak zein baldintzetan tratatzen dituen jakin dezazun eta zure eskubideei buruzko informazioa jaso dezazun.